

2025

Inpaktu-
memoria
matia

matia

2025, inpaktu urtea

2025. urtea jarraitutasunaren eta sakontzearen urtea izan da Matian. Aurreko ekitaldian gure xedea berritu eta berriz definitzeko ahalegina egin bagenuen, aurreko urrats bat gehiago eman dugu hura eguneroko errealitate bihurtzeko. Alegia, pertsonen bizitzan eta erakundearen jarduteko moduan modu angaiagoan txertatzen saiatu gara. Ez da adierazpen edo asmoen aldaketa hutsa izan; aitzitik, pixkanaka sendotzen ari den norabide baten adierazpena da, pertsona bakoitzaren duintasuna benetan bermatzeko hartzen diren erabakietan, egituretan eta jardunbideetan islatzen dena.

Testuinguru horretan, **Sustraiak** proiektuaren garapenak aurrerapauso garrantzitsua ekarri du **Pertsonarengan Oinarritutako Arretatik** pertsonaren parte-hartzea erdigunean jartzen duen ikuspegira igarotzeko bidean. Aldaketa hori ez da xehetasun hutsa. Izan ere, ulertzea dakar ez dela nahikoa laguntzak pertsonaren inguruan antolatzea; beharrezkoa dela, gainera, pertsona bakoitzak bere bizitzan eragina duten erabakietan benetan parte hartu ahal izateko baldintzak sortzea.

Sustraiak ikuspegi hori modu sistematikoan lantzeko aukera eman du, plangintza-prozesuei koherentzia handiagoa emanez, pertsonen ahotsa modu egituratuan txertatuz eta laguntzen dutenen zein laguntza jasotzen dutenen arteko erantzukizun partekatua indartuz. **Horrela, pertsonak soilik laguntzen ez dituen ereduak sendotzen ari gara; pertsonen iritzia aitortu, balioetsi eta erabakitzeko gaitasuna aktibatzen duen ereduak, hain zuzen ere.**

MARIA CARMEN
GARMENDIA

Matia Fundazioaren
Patronatuko
presidentea

Aurrerapen hori indartu egin da **Matiako Giza Eskubideen Batzordea** sendotuz joan den heinean. 2025ean ere, pertsonen bizitzan eragina duten erabakietan parte hartzea benetan posible egiteko funtsezko egitura izaten jarraitu du. **Izan ere, Batzordea ez da izaera formaleko edo aholku-emaille hutseko organoa; gure laguntza-ereduaren parte da, etxebizitzetako eguneroko bizitza eta erakundearen erabakiak aztertu eta bideratzen diren guneak lotzen dituena.**

Batzarrak, ordezkaritza-sistemak eta elkarriketa partekatua uztartzen dituen egiturari esker, pertsonen ahotsak benetako bideak aurkitzen ditu entzuna izateko eta eragina izateko. Berezi garrantzitsua izan da eskubideen erabilerarekin lotutako egoerak aztertzeko orduan, baita autonomia, aukeratzeko gaitasuna eta bizi- proiektuen gaineko kontrola indartzen dituzten alternatibak proposatzeko ere.

Horrenbestez, Batzordearen sendotzeak ez du soilik gure ereduaren koherentzia indartzen; parte-hartzea eguneroko praktika erreal eta eraginkor bihurtzen laguntzen du, laguntza eta zaintza ulertzeko eta bizitzeko modua eraldatuz.

Bestalde, **2025a prestakuntzaren eta ezagutza aplikatuaren sendotzearen urtea ere izan da, eraldaketarako tresna estrategiko gisa. Matia Institutuak garatutako jarduerak indartu egin du praktikara eta zaintza-sistemaren benetako erronketara estuki lotutako ezagutza erabilgarria sortzeko duen bokazioa.**

Prestakuntza-proposamen berriak martxan jartzeak eta dagoeneko abian ziren ibilbideak sendotzeak aukera eman dute profesionalen eta sistemako beste eragile batzuen gaitasunak indartzeko. Horri esker, pertsonak, komunitatea eta eskubideak erdigunean jartzen dituzten ikuspegiak gero eta gehiago txertatzen ari dira eguneroko jardunean eta zaintzen antolaketan.

Administrazio publikoekin dugun harremanak sendotzen jarraitu du zaintza-sistema eraldatzeko helburu partekatuen inguruan. Eguneroko jardunak ematen duen esperientziatik abiatuta, Matiak ezagutza, ikaskuntzak eta lan egiteko moduak partekatzen ditu, eraldaketa-prozesu horiek ulertzen, bideratzen eta errealitatean gauzatzen laguntzeko. Elkarlaneko etengabeko gune horietan sortzen dira erakunde bakoitzaren mugak gainditzen dituzten aurrerapenak, eta bertan dute politika publikoek ezinbesteko zeregina aldatetako posible egiteko.

Horregatik, ezagutza aplikatua, prestakuntza eta laguntza uztartzen dituen lan-ildoak gero eta garrantzi handiagoa hartu du. Helburua argia da: praktikan oinarrituta eta beste eragileekin elkarlanean, zaintza-sistema osoaren hobekuntzan ekarpena egitea.

Matia, bere ibilbideari eta interes orokorraren alde lan egiten duen irabazi-asmorik gabeko fundazio gisa duen bokazioari leial, erakunde publikoekin eta gizarteko gainerako eragileekin elkarlanean ulertzen du bere egitekoa. Ez da soilik lan egiteko modu bat; konbikzio sakon baten adierazpena ere bada. Pertsonen duintasuna bermatzea guztion ardura dela ulertzen dugu, eta horrek aliantzak, koherentzia eta epe luzeko ikuspegia eskatzen ditu.

Azken batean, **2025a helburu bat eguneroko praktika bihurtzen joan den urtea izan da; parte-hartzearen bidez sakontzen den eredu baten urtea; eskubideak indartzen dituzten espazioak sendotu diren urtea; eta ezagutza eraldaketaren motor gisa ulertzeko apustua berretsi den urtea.**

Aspalditik datorren eta etengabe eraikitzen ari den ibilbide baten parte gara. Bide horretan aurrera egiten jarraitzen dugu, pertsona bakoitzak bere bizitza zentzuz eta bere erabakiak hartzeko aukerekin garatu ahal izateko behar diren inguruneak sortzeko erantzukizuna geure gain hartuz.

AURKIBIDEA

01

Nor gara?

02

Inpaktua ingurunean

03

Nola sortzen dugu inpaktua?

04

Matiako taldea

05

Boluntariotza

06

Ikerketaren inpaktua

07

Inpaktu ekonomikoa

08

Gardentasuna eta
gobernu ona

01 Nor gara?

Fundazioa

Matia irabazi asmorik gabeko fundazio pribatu bat da, interes orokorreko jotzen dena, eta 140 urte baino gehiagoko esperientzia du Gipuzkoan zerbitzu soziosanitarioak ematen. Patronatua hainbat eremu profesionaletako 10 pertsona nabarmenek osatzen dute, eta horiek modu independentean eta borondatez parte hartzen dute gobernantzan.

Patronatua Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak arautzen du.



Gure posizionamendua

Duintasuna:

Duintasuna pertsona guztiek dugun berezko balioa da, existitze hutsagatik dagokiguna. Horrek esan nahi du pertsona guztiek errespetuz tratatuak izatea merezi dutela, haien egoera, adina edo behar dituzten laguntzak edozein direla ere.

Matian ulertzen dugu zaintzeak duintasun hori bermatzea esan nahi duela, pertsona bakoitzaren eskubideak, askatasunak eta erabakiak aitortuz eta errespetatuz, eta bizitza osoa eta zentzuduna garatzeko behar dituen laguntzak eskainiz.

Inguruneak:

Ingurunea gure inguruan dauden pertsona, espazio, objektu eta egoerek osatzen dute. Dimentsio fisikoak, sozialak, kulturalak, digitalak, ekonomikoak eta politikoak barne hartzen ditu, eta eragina du parte hartzeko ditugun aukeretan zein gure bizi-proiektua garatzeko moduan.

Matian ingurune lagunkoiak, inklusiboak, irisgarriak eta gaitzaileak sustatzen ditugu, pertsonak, administrazioak eta erakundeak bidelagun izanik autonomia, parte-hartzea eta duintasuna bultzatzen dituzten gizarte-ereduak eraikitzeko bidean.

Parte-hartzea:

Parte-hartzea autonomiarekin eta komunitateko kide aktibo izateko aukerarekin lotutako eskubidea da. Norberaren bizitzan eta bizi den ingurunean eragina duten gaietan erabakiak hartu, iritzia eman eta parte hartu ahal izatea esan nahi du.

Matian eskubide hori bermatu nahi dugu, pertsona bakoitzak bere lehentasunak adierazi, erabakiak hartu eta parte hartzeko aukera izan dezan beharrezko espazioak, laguntzak eta aukerak sustatuz, betiere haren aniztasuna, beharrak eta erritmoak aitortu eta errespetatuz.

Autonomia:

Autonomia gure bizitza nola bizi nahi dugun erabakitzeke eta guri eragiten diguten erabakietan modu aktiboan parte hartzeko gaitasuna da. Pertsona guztiek dugu eskubide hori erabiltzeko aukera, behar ditugun laguntzak edo bizi garen lekua edozein direla ere.

Matian ulertzen dugu autonomia ez dagoela pertsonaren esku soilik; inguruneak eta haren inguruko harremanek ere eragin handia dute. Horregatik, pertsona bakoitzak bere bizitzaren gainean ahalik eta kontrol handiena mantendu ahal izateko testuinguruak eta laguntzak sortzen eta sustatzen ditugu.

Nola ulertzen dugu guk...?

Laguntza:

Matian, bidelaguntza pertsonak, taldeak edo erakundeak laguntzeko modu bat da, berdintasuneko harreman batean oinarritua, presentzian, eskuragarritasunean eta irekitasunean sustraitua. Pertsona bakoitzaren ezagutza, balioak eta sinesmenak aitortzea dakar, elkarrekikotasunean oinarritutako testuinguru batean.

Bidelagun izateak pertsona bakoitzak bere bizitza- eta aldaketa prozesuaren gidaritza hartu ahal izateko baldintzak sortzea esan nahi du. Ikuspegi hori presente dago bai pertsonen zahartze-prozesuetan ematen den laguntza zuzenean, bai zaintzen eraldaketan erakunde eta komunitateei bidelaguntza eskaintzera bideratutako ekimenetan ere.

Interdependentzia:

Matian abiapuntutzat hartzen dugu pertsona guztiok elkarren mendekoak garela. Hori aitortzeak aukera ematen digu pertsonak ez ikusteko subjektu pasibo gisa, baizik eta eskubideak, gaitasunak, historia eta ekarpena egiteko ahalmena dituzten pertsona gisa, laguntza handiak behar dituztenean ere.

Elkarrekikotasunak harremanak berdintasunean eta elkar aitortzetik ulertzea dakar. Horrek esan nahi du erabakiak nola hartzen diren, pertsonak beren bizitzan eragina duten gaitetan nola parte hartzen duten eta loturan, entzutean eta errespetuan oinarritutako zaintza- harremanak nola eraikitzen diren berrikustea.

Era berean, erakundetik harago begiratzea ere bada: komunitatearekin aliantzak ehuntzea eta isolamendu edo bazterketa egoerak saihestea.

Pertsonengan Oinarritutako Plangintza:

Pertsonan oinarritutako plangintza laguntzak eta zaintzak antolatzeko modu bat da, pertsona bakoitza erabakien erdigunean jarritz.

Pertsonaren eskubideak, lehentasunak, itxaropenak eta beharrak aitortzetik abiatzen da, eta laguntzak egoera eta bizi-unearen arabera egokitzen ditu.

Ikuspegi honek entzute aktiboa, parte-hartzea eta malgutasuna eskatzen ditu, beharrak eta lehentasunak denborarekin aldatu egiten direlako. Era berean, profesionalen rolak berrikustea, pertsonak hobeto ezagutzen laguntzen duten tresnak erabiltzea eta duintasuna, ongizatea, parte-hartzea eta norberaren bizitzaren gaineko kontrola sustatzen dituzten ingurune fisiko eta harremanezkoak sortzea eskatzen du.

Kasuaren kudeaketa: bizi-planak erraztea:

Kasu-kudeaketa bidelaguntzarako metodologia bat da, pertsona eta komunitatea erdigunean jarritz arreta integrala eta jarraitua eskaintzea helburu duena. Pertsona bakoitzaren beharrak, gaitasunak eta ingurunea modu osoan ulertzetik abiatzen da, eta bere bizi-proiektuaren protagonista gisa kokatzen du.

Ez da eskaera edo behar zehatzei erantzutera mugatzen; laguntzak koordinatzen ditu, baliabideetarako sarbidea errazten du eta harremanean, entzutean eta parte-hartze aktiboan oinarritutako prozesuak sustatzen ditu.

Ikuspegi honek begirada integrala, pertsonalizatua eta malgua eskatzen du, sareko lanean, etengabeko ebaluazioan eta komunitatearekin zein dauden laguntzanaturalekin loturan oinarrituta.

Komunitatea:

Komunitatea lurraldea, jarduerak, balioak, kultura edo interesak bezalako elementu komunak partekatzen dituzten pertsonen osatzen dute. Bertan etengabe garatzen eta eraldatzen diren harreman pertsonalak, sozialak eta instituzionalak sortzen dira.

Matian komunitatea pertsonen parte-hartzerako, inklusiorako eta garapenerako funtsezko espaziotzat hartzen dugu. Zaintzak ez dira modu isolatuan gertatzen; komunitateko bizitzarekin eta haren parte diren sare eta harremanekin lotuta garatzen dira.

Gizarte-eraldaketa:

Gizarte-eraldaketak gizarte baten antolaketan eta funtzionamenduan gertatzen diren aldaketa sakonak dakartza. Aldaketa horiek faktore teknologikoek, ekonomikoek, klimatikoek, demografikoek edo kulturalak bultzatzen dituzte, eta eragina dute bizi, lan egin eta elkarrekin harremanak izateko dugun moduan.

Zaintzen eremuan, gizarte-eraldaketak laguntzak ulertzeko eta antolatzeke modu berrietarantz aurrera egitea esan nahi du, pertsonalizatuagoak, komunitarioagoak eta pertsonen eskubideetan eta duintasunean oinarritutako eredu-erantz.

Lagunkoitasuna:

Lagunkoitasunak ingurune batek pertsonen modu aktiboan, parte-hartzailean eta zentzuz zahartzeko eskaintzen dituen aukerei egiten die erreferentzia. Ingurune lagunkoi batek pertsonen gaitasunak eta lehentasunak aitortzen ditu, haien aniztasuna errespetatzen du eta komunitateko bizitzan parte hartzea sustatzen du.

Zaintzen eremuan, lagunkoitasunak pertsona guztientzako testuinguru iragarriak, inklusiboak eta parte-hartzaileak sortzea dakar, bai laguntzak jasotzen dituztenentzat, bai zaintzen parte diren profesionalentzat, familientzat, boluntarioentzat eta komunitatearentzat. Era berean, parte hartzeke eskubidea gauzatzeko behar diren espazioak eta bideak bermatzea ere bada.

Berrikuntza soziala:

Berrikuntza sozialak funtsezko lekua du Matiaaren xedean. Zahartzeari eta zaintzei lotutako erronkei erantzun eraginkorragoak, jasagarriagoak eta bidezkoagoak emateko ideia, jardunbide, zerbitzu eta eredu berriak garatzea da haren helburua.

Ikuspegi honek ikerketa aplikatua, ezagutzaren transferentzia eta pertsonak erdigunean jartzen dituzten intsebidien garapena uztartzen ditu. Era berean, eragile desberdinen arteko lankidetzak eta baterako sorkuntza sustatzen ditu, pertsonen bizi-kalitatean benetako hobekuntzak lortzeko eta epe luzeke gizarte-aldaketa jasagarriak bultzatzeko.

Jasagarritasuna:

Jasagarritasunak gaur egun modu arduratsuan jardutea esan nahi du, etorkizuneko aukerak eta beharrak arriskuan jarri gabe. Matian ulertzen dugu horretarako garapen ekonomikoaren, gizarte-konpromisoaren eta ingurumenaren babesaren arteko oreka bilatu behar dela.

Ikuspegi ekonomikotik, proiektuek eta zerbitzuek bideragarriak izan behar dute eta etorkizunerako beharrezko baliabideak bermatu. Gizartearen ikuspegitik, gure jarduerak pertsonen eta taldeen denboran zehar mantendu ahal izango duten moduan garatu behar dugu. Eta ingurumenaren aldetik, gure ekintzek etorkizuneko belaunaldientzat beharrezkoak diren baliabide naturalak errespetatu eta zaindu behar dituzte.

Zahartze aktiboa, osasungarria eta esanguratsua:

Matian zahartzea prozesu natural eta askotarikoa dela ulertzen dugu, pertsona bakoitzaren nortasunak, bizipenek eta bizi-egoerek baldintzatua. Horregatik, prozesu horretan bidelagun izaten gara, pertsona bakoitzaren biografia, harremanak eta bere bizitzari ematen dion zentzua aitortuz.

Zahartze osasuntsuaz hitz egiten dugu pertsonak garrantzitsutzat jotzen dutena egiteko aukera ematen dieten gaitasunak mantentzen dituztenean; zahartze aktiboaz, jarduera esanguratsuetan parte hartzen dutenean eta beren ingurunearekin lotuta daudenean; eta zahartze esanguratsuaz, bizipenek, sinesmenek eta bizi-ibilbideek zentzuzkobizitza mantentzen laguntzen dutenean.

Bizilekuak eta zainketak:

Azken hamarkadetan, zaintza-ereduak ikuspegi instituzionalago eta homogeneoagoetatik pertsonen bizitza independentea, parte-hartze soziala, komunitatean inklusioa eta norberaren bizitzaren gaineko kontrol handiagoa sustatzen duten eredu askotarikoagoetara igaro dira.

Matian egoera eta behar desberdinei erantzuteko hainbat aukera garatzen ditugu. Gure egoitzak bizikidetza-unitateetan antolatutako eredueta bideratzen ari dira, hurbilagoak eta pertsonalizatuagoak izateko. Era berean, azken urteotan Egurtzegi edo Lugaritzeko apartamentuak bezalako aukera berriak bultzatu ditugu, autonomia handiagoa, komunitatean integratzea eta erabakitze gaitasuna sustatzeko.



Zuzeneko inpaktua:

33.795
pertsonek

Zeharkako inpaktua:

546.358
pertsonek

580.153
pertsonek


beren bizi proiektuak
garatu ahal izan ditzaten
laguntzen dugu, beren autonomia
eta parte hartzea sustatzera
eta beren duintasuna
bermatzera bideratutako
ingurune, zaintza, laguntza eta
ezagutzaren bidez

Inpaktua

Matian, inpaktua pertsonen bizitza
inguruneetan sortu nahi ditugun
gisa ulertzen dugu. Modu ulergarri
izateko, zuzeneko inpaktua eta zeharkako
berezitzen ditugu (ikusi .03)

Xedea

Pertsonei zahartze prozesuan laguntzea,
haien duintasuna bermatzeko, ezagutza,
zerbitzu pertsonalizatuak eta beren
autonomia modu jasangarrian sustatzen
duten giro eta inguruneak sortuz.



Helburua

Gizartea eraldatzeko eragile bat izatea, modu jasangarrian erantzun aditua emango duena eta zahartzearen eta desgaitasunaren esparruan pertsonak ardatz izango dituen.

...zan eta bizi diren
...aldaketen multzo
...rrian azaldu ahal
...eharkako inpaktua



m1

milioi

Erronka

Milioi 1 Erronkak Matiares asmoa adierazten du, beste eragile publiko, sozial eta komunitario batzuekin batera, zaintzen eredu eta bizitza iraupena ulertzeko modua eraldatzen laguntzeko, 2060an milioi bat pertsonaren ongizatean eragin positiboa sortzeko.

Kontua ez da soilik zerbitzuetan haztea, baizik eta zaintzak eta laguntzak ulertzeko modu berri bat bultzatzea: integratuagoa, komunitarioagoa, pertsonalizatuagoa eta pertsona bakoitzaren bizi proiektuekin konektatua.


Erronkak baliabideetan zentratutako logika batetik begirada ekosistemiko baterantz eboluzionatzea planteatzen du, non ezagutzak, berrikuntzak, parte hartzeak eta lankidetzak autonomia, duintasuna eta zentzua duen bizitza bultzatuko duten testuinguruak, inguruneak eta laguntzak eraikitzea ahalbidetuko duten.


Jarraian, gure helburuaren hedapena aurkezten dugu, jarduera adierazleen bidez.



02 Inpaktua ingurunean

Etika batzordea






Matian, iraupen luzeko zaintza ereduak eraldatzeko konpromiso irmoarekin lan egiten dugu. Gure eragina pertsonen ongizatean eta gizarte, osasun eta komunitate eragileekiko lankidetzan aktiboan islatzen da.

Konpromiso horrek eragin positiboa du gure ingurunean ere, komunitatean enplegua sortuz eta tokiko gizarte sarea indartuz.

34 Ikerketa-proiektu

6 Presentzia autonomia erkidegoetan

Matia Eskolak lurralde osoan du presentzia




03 nola sortzen dugu inpaktua?

Matian ulertzen dugu dena pertsonatik abiatzen dela: bere bizitzatik, beharretatik, gaitasunetatik, harremanetatik, erabakietatik eta berarentzat garrantzitsua den horretatik. Zaintzen eta laguntzen ekosistema ez da zerbitzuen edo erakundeen inguruan antolatzen, pertsonen inguruan baizik, eta haien bizi-proiektua zentzuz garatzen jarrai dezaten nola bidelagun izan pentsatuz.

Horregatik, zaintzak eta laguntzak pertsona bakoitzera egokitu behar den sare gisa ulertzen ditugu, eta ez alderantziz. Sare horretan hainbat eragilek hartzen dute parte —baliabideek, zerbitzuek, profesionalek, familiak, administrazioek eta komunitateak—, egoera eta bizi-une bakoitzari egokitutako erantzun pertsonalizatuagoak, hurbilagoak eta koherenteagoak eskaintzeko.

- Matia Orienta
- Bizi-inguruneak
- Osasuna
- Komunitatea
- Matia Institutua



Zaintza


Ikuspegi honetatik, eragina sortzeak esan nahi du pertsonak beren bizitzaren gainean ahalik eta kontrol handiena mantendu ahal izaten laguntzea, beren ingurunean parte hartzen jarraitzea eta komunitateko kide aktibo izaten segitzea, eguneroko zaintzak eta laguntzak behar dituztenean ere. Era berean, zaintzak eta laguntzak antolatzeako modua eraldatzea ere bada, ingurune inisgarriagoak, harreman horizontalagoak eta pertsonen benetako bizitzarekin lotura handiagoa duten ereduak sustatuz.

Ekosistema honetan, Matia eragile bat gehiago da. Pertsonak zuzenean bidelagun ditugu, baina baita gizarte-, osasun- eta komunitate-eragileekin elkarlanean ere jarduten dugu, erantzun integratuagoak, gizatiarragoak eta jasangarriagoak eraikitzeak. Gure egitekoa da, beste eragile batzuekin batera, pertsonak duintasunez, autonomiaz eta parte-hartzez beren bizi-proiektuak garatzen jarraitu ahal izateko testuinguruak sortzen laguntzea. Izan ere, guretzat zaintzea eta laguntzea ez da zerbitzu bat ematea soilik; pertsona bakoitzak ahalik eta modurik hautatuenean bizi ahal izateko behar diren baldintzak sortzea ere bada.



za ekosistema

580.153
pertsonen
 bizitza-proiektuan
 eragin positiboa
 izan dugu



Matian, inpaktua pertsonen bizitzan eta bizi diren inguruneetan sortzen laguntzen dugun aldaketa multzo gisa ulertzen dugu. Eragin hori modu ulergarrian azaltzeko, bi dimentsio bereizten ditugu: zuzeneko eragina eta zeharkako eragina.

Bereizketa horri esker, gure jardueraren ikuspegi osoagoa eskain dezakegu. Alde batetik, pertsonen eguneroko bizitzan eskaintzen dugun laguntza eta bidelaguntza dago; bestetik, komunitatean eta gizartean eragiteko dugun gaitasuna, betiere pertsona bakoitzaren duintasuna, eskubideak eta bizi-proiektua errespetatuz.

Zuzeneko inpaktua

Zuzeneko inpaktua pertsonen modu jarraituan laguntzen diegun egoerei dagokie, jasotzen dituzten laguntza eta zaintzen gainera erantzukizun zuzena hartuz. Hor sartzen dira gure zentroetan bizi diren pertsonak, bizitza osorako etxebizitzetan bizi direnak, etxeko ingurunean edo ospitalean laguntza jasotzen dutenak, baita zuzenean edo modu integratuan kudeatzen ditugun zerbitzuekin lotura duten pertsonak ere.

Kasu horietan, argi identifika daiteke eskaintzen den laguntzaren eta pertsonen bizitzan sortzen den aldaketaren arteko lotura.

33.795 pertsona

Zeharkako inpaktua

Zeharkako inpaktuak, berriz, zuzeneko laguntzatik harago sortzen laguntzen ditugun aldaketak biltzen ditu. Horien artean daude ezagutzaren transferentzia, beste erakunde batzuei eskaintzen diegun laguntza, administrazio publikoekin egiten dugun lankidetzaren eta komunitate-ekimenak sustatzeko egiten dugun lana. Era berean, ikerketaren, prestakuntzaren eta zaintza eta laguntzak ulertzeko eta antolatze modu berriak sustatzen dituzten berrikuntza-proiektuen bidez sortzen den eragina ere barne hartzen du. Kasu hauetan, aldaketa beste eragile batzuen bidez gauzatzen da, baina gure xedearen eta gizarteari egiten diogun ekarpenaren parte da.

546.358 Pertsona

Zuzeneko inpaktua

%13,6

1.595 Artatutako pertsonak

3.000 Familia eta ingurunea

%60,7

12.510 Artatutako pertsonak

8.014 Familia eta ingurunea

%25,7

5.892 Artatutako pertsonak

2.784 Familia eta ingurunea

Zeharkako inpaktua

%80


437.217 Eragindako pertsonak

95.609 Eragindako pertsonak


%17,5
%2,5

13.532 Eragindako pertsonak

Ongizateari ekarpenaren bilakaera



Artatutako pertsonak, familia eta inguruko bilakaera



Eraginaren ekarpenaren bilakaera



3.1 Bizi-inguruneak

1.595
Artatutako
pertsonak

3.000
Familia eta
ingurunea

1.143
Langile 

Matian bizi-inguruneak pertsonak beren historiarekin, harremanekin, erabakiekin eta eguneroko bizitzari zentzua ematen dioten elementuekin bat etorri bizitzen jarraitu ahal izateko espazio gisa ulertzen ditugu. Bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta bizi-proiektuak garatzeko lekuak dira, ez soilik zaintzak edo laguntzak jasotzeko espazioak.

Bizi-ingurune horiek bertan bizi diren pertsonetara egokitu nahi dute, autonomia, parte-hartzea, harreman esanguratsuak eta eguneroko ongizatea sustatuz. Horretarako, zaintzak eta antolaketa ulertzeko beste modu bat behar da: hurbilagoa, pertsonalizatuagoa eta komunitatearekin lotuagoa, non bidelaguntza loturan, entzutean eta pertsona bakoitzarekiko errespetuan oinarritzen den.



 Adineko
pertsonak

 Aniztasun
funtzionala
duten pertsonak


 Adinekoentzako egoitza
zaintzadun etxebizitzak

1.065 Artatutako
pertsonak

8

2.130 Familia eta
ingurunea

7,58



 Unitate Soziosanitariaoa:

75 Artatutako
pertsonak

7,35  Ongizate indizea

150 Familia eta
ingurunea

 Egoitza
funtzionala

118

7,2

ak eta
K:

Egoitza

Ongizate indizea



goitzak eta dibertsitate
untzionaleko unitateak:

3 Artatutako
pertsonak

2 Ongizate indizea

Kudeaketa integratua:

San Martín Egoitza

222 Artatutako
pertsonak

444 Familia eta
ingurunea

Tutoretzapeko
apartamentuak:

10 Artatutako
pertsonak

8,6 Ongizate indizea

Bizitza Osorako
Etxebizitzak:

66 Artatutako
pertsonak

UCAS:
(Bizikidetza-unitateak)

19 Artatutako
pertsonak

URTMS:
(Nahasmendu Mental Larriko Egoitza Unitatea)

20 Artatutako
pertsonak

7,8 Ongizate indizea


3.2

Osasuna

Matiak aurrera jarraitzen du Pertsonarengan Oinarritutako Arreta (POA) eredua garatzeko bidean, pertsona bakoitzak bere bizi-proiektuan eta hari eragiten dioten erabakietan parte hartzea funtsezkotzat jotzen duen ikuspegia sendotuz.

12.510 Artatutako pertsonak

8.014 Familia eta ingurunea



Matia Ospitalea



1.525 Artatutako pertsonak

9,1 Ongizate indizea

3.050 Familia eta ingurunea

1.525 Ospitaleratze

- 191 psikogeriatria
- 503 errehabilitazioa
- 183 zainketa aringarriak
- 367 susperraldia
- 49 egonaldi luzea

187 Langile


22 Batez besteko egonaldiko egunak



Geriat

2.48

4.96



riako kontsultak

32 Artatutako
pertsonak

4 Familia eta
ingurunea

4 Langile 

3.563
Kontsulta

 1.550
aurrez aurre

 2.013
telefonoz

%100

Eusko Jaurlaritzako
Osasun Sailaren
estandarraren
betetze-maila

 Errehabilitazio
ambulatorioa

8.503 Artatutako
pertsonak

7.566 errehabilitazioa
937 logopedia

pertsonen
%82_{ak}
patologia
hobetu dute

67
Langile 

16.380
Kontsultak eta
berrikuspenak

23,58
eguneko batez
besteko
egonaldia
errehabilitazioan

35,38
eguneko
batez besteko
egonaldia
logopedia-
saioetan



3.3

Komunitatea

5.892
Artatutako
pertsonak

2.784
Familia eta
ingurunea

Matiak pertsonak eta familiak beren bizi-inguruneetan bertan bidelagun ditu, zaintza eta laguntza pertsonalizatuagoak, koordinatuagoak eta komunitatearekin lotuagoak sustatuz.

Laguntza horiei esker, pertsonak beren etxeetan eta ohiko inguruneetan bizi-proiektuak garatzen jarraitu dezakete, autonomia, parte-hartzea eta ongizatea sustatuz. Aldi berean, eguneroko bizitzaren parte diren komunitateko sareak eta zaintza- eta laguntza-sareak indartzen laguntzen dute.

Etkez etxeko arreta

986 Artatutako
pertsonak

9,28 Ongizate indizea

1.972 Familia eta
ingurunea

280 Langile

182.845 h Emandako etkez
laguntza-orduak

157.561 h emandako orduak(ELZ) 25.284 h prestatuak (AP)

Matia Orienta



1.558 Artatutako
pertsonak

8,46 Ongizate indizea

1 Langile

1.558
kontsultak

24 ordu
kontsultak ebazteko
batez besteko denbora





Eguneko zentroak

406 Artatutako pertsonak

8,9 Ongizate indizea

812 Familia eta ingurunea

44 Langile 

65 Zentro

etxeko



Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioa

2025eko irailaren 1era arte emandako zerbitzua - Zeharkako inpaktua



5.968 Etxe

5 Egoitza Gipuzkoan

398 Zentro

5.269 Egindako egiaztapen teknikoak

47 Langile 

9.077 Egindako balorazioak

6.514
mendekotasun-
balorazioak

2.563
desgaitasunaren
balorazioak



3.3

Komunitatea



EAPS

Arreta psikosoziala gaixotasun aurreratuak dituzten eta doluan dauden pertsonei



1.086 Artatutako pertsonak

5 Langile



SENDIAN



SENDIAN Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako programa da, mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonak etxean zaintzen dituzten senideei laguntzeko.

Programak prestakuntza, laguntza psikologikoa eta elkarri laguntzeko taldeak eskaintzen ditu, zaintzaileek beren ongizatea zaindu eta egunerokoan babes handiagoa izan dezaten.

Helburua da etxean bizi-kalitate ona eta orekatua sustatzea, zaintzen duen pertsonaren zein zaintza jasotzen duenaren ongizatea zainduz.

728 Artatutako pertsonak

8 Langile

7,6 Ongizate indizea

16 Udalerri





Zaintzaileentzako Laguntza eta Prestakuntza Taldeak PECEF



Zaintzaileentzako Laguntza eta Prestakuntza Taldeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako programa dira, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak familia-ingurunean zaintzen dituztenei zuzenduta.

Talde horietan zaintzari buruzko oinarrizko prestakuntza, laguntza emozionala eta eguneroko egoperei aurre egiteko tresna praktikoak eskaintzen dira.

Helburua da zaintzaileen ongizatea indartzea eta etxean kalitatezko zaintza eskaintzen laguntzea.

19 laguntza-talde

232 partehartzaile

1.901 banakako laguntza psikologikoko saio


613 banakako laguntza-saioetako zaintzaileak

1.128 Artatutako pertsonak

8,97 Ongizate indizea

7 Langile 

82 Antolatutako ikastaroak



3.4

Zeharkako inpaktua

Zerbitzu ematea:

Ezagutza transferentzia (Matia Eskola)

2.361 Prestatutako pertsonak

10.488h Emandako prestakuntza

39 Komunitateari irekitako zaintzaren eraldaketari lotutako formakuntzak

17 Pertsonak prestatu ditugun autonomia erkidegoak eta hiriak

43 Herrialde



Akonpainamendua

81 Egindako prestakuntzak

162 Prestatutako pertsonak




Diagnostikoak

36 Egindako diagnostikoak

3.000 Artatutako pertsonak

3.098 Langile



SIGECA

1.801 Artatutako pertsonak

768 Profesionalak

3 Lagundutako erakundeak



Elikadura

240 Artatutako pertsonak

3 Lagundutako erakundeak

Euskadi Lagunkoia (Ezagutu xehetasunak .06 atalean)

Euskadi Lagunkoia Euskadi mailako komunitate-ikerketako proiektu garrantzitsua da. Bere helburua Euskadiko udalerrietan adineko pertsonentzat lagunkoiagoak diren inguruneak sustatzea da, haien parte- hartzea, ongizatea eta bizi-kalitatea indartuz.

Euskadi Lagunkoia Eusko Jaurlaritzak bultzatutako eta Matia Institutuak garatutako ekimen komunitarioa da.



437.217 Pertsona

90 Udalerri



Zabalkundea, sentsibilizazioa eta transferentzia soziala eremu digitalean

Matia ren jarduera digitala bere zeharkako eraginaren parte da. Horren bidez, zahartzeari, autonomiari, duintasunari, parte-hartzeari eta pertsonengan oinarritutako zaintza- eta laguntza- eredu berriei buruzko gizarte- eztabaida zabaltzen eta aberasten laguntzen du.

Datu kuantitatiboetatik harago, zifra hauek erakusten dute gai garestia sentsibilizatzeko, ezagutza partekatze, zaintza eta laguntzei buruzko begirada berriak zabaltzeko eta pertsona, profesional, erakunde eta instituzioekin harremanak sortzeko. Guztiok dugu helburu bera: duintasuna, autonomia eta komunitatean bizitzeko aukera sustatzen dituzten eredu gizatiarrago, komunitarioago eta pertsonengan oinarrituagoetan aurrera egitea.

2025ean, Matia ko komunitate digitala honetara iritsi zen:

 37.479 Jarraitzaile

 58.130 Bisitari bakarrak

 871.000 Eragindako inpresioak

 35.300 Interakzio



04 Matia taldea

Matia taldea honako hauek osatzen dute:

1.652 Pertsona
2,91/4

Ongizate indizea

Emakumeen eta gizonen %


♂ **%13,2** Gizonak

♀ **%86,6** Emakumeak

Zerbitzuetan dauden pertsonen %

%93 Arretan ari diren pertsonak
%7 Eremuak:
- Kudeaketa
- Pertsonak
- Ikerketa
- Teknologia eta komunikazioa

Langileen bilakaera



2025ean:

359 kontratazio urte honetan

%80,5 lan-egonkortasuna langileei dagokienez



Barne-formakuntza:

16.275 h Jasotako formakuntza

6.858 h Etxeko formatzaileek emandako formakuntza orduak

219



Praktiketan egon diren ikasleak

52

prestakuntza-erakunde laguntzaileak


11

pertsona osasun-prestakuntza espezializatuan

65


bisita

Jasotako formakuntza orduen bilakaera



Langileen jatorrizko herrialdea:

- España %83,1
- Nicaragua %3,8
- Honduras %1,9
- Colombia %1,8
- Marruecos %1,2
- Beste nazionalitate batzuk %8,2




05 Boluntariotza

Matian, iraupen luzeko zaintzen eredia eraldatzeko konpromiso sendoarekin lan egiten dugu. Gure eragina pertsonen ongizatean islatzen da, baita gizarte-, osasun- eta komunitate-eragileekin garatzen dugun lankidetzak aktiboan ere.

Konpromiso hori gure ingurunean sortzen dugun eragin positiboan ere gauzatzen da: komunitatean enplegua sustatuz eta tokiko gizarte-sarea indartzen lagunduz.


3.383
Boluntario

Boluntarioen bilakaera




17.368 h
Boluntario ekintzetan

Boluntarioen orduen bilakaera



225
Erakunde laguntzaile

Entitate laguntzaile boluntarioen bilakaera



Oraindik eko

- Matia Giz
- Istorio ba
- Ligan ego geunden, unea inits



oizpenean daude:

a Eskubideen Batzordea
t duten oroitzapenak
teko irrikitan
eta gure
i da!

2025ean amaituta:

- Banku partekatua
- #100FLUENCERS
- Musikarekin
nonahi
- KantuKLIK

Jarraitutasuna:

- Tamborrada
- Altuerako topaketak

9

2025ean egindako
ekimenak



Matia Zale sarea

1.001 MatiaZale

56 Bazkide

18 Eskola

48 Elkarte


41 Enpresa

2.186 Pertsona
kultur
jardueretan

436 Gazte
belaunaldi arteko
proiektuetan

703 Pertsona
aisialdiko eta
irteerako jardueretan

58 Pertsona
Etengabeko eta/edo unean
uneko laguntzako boluntarioak



06 Ikerketaren inpaktua

Matia Institutuaren bidez, ezagutza sortu eta transferitzen dugu, zahartzearen erronka nagusiei erantzuten dieten ikerketa aplikatuko eta berrikuntza sozial eta sanitarioko proiektuen bidez.

Gure asmoa ezagutza hori pertsona guztiei duintasunez zahartzeko aukera emango dieten soluzio bihurtzea da, eta ikerketa da iraupen luzeko zainketak eraldatzeko tresna nagusietako bat.



Matia Institutua
2025ean lortu dugu:

34 proiektu

2 Nazioarteko proiektu

Europa

El Salvador

32 Erakunde eta erakundeentzako laguntza

6 Autonomia erkidegotan

25 Euskadi

1 Aragoi

1 Asturias

1 Galizia


1 Madril

1 Valentzia

2 Estatu mailan (Ministerioa)

10 Argitalpenak

34 Aurkezpenak eta hitzaldiak



Inpaktu komunitarioko proiektu garrantzitsua:

Euskadi Lagunkoia

437.217

Proiektuak
eragindako pertsonak

90

Udalerri
Euskadin

6 

Langile

Euskadi Lagunkoia Eusko Jaurlaritzak sustatutako eta Matia Institutuak garatutako komunitate-ekimena da, Euskadiko udalerrietan adineko pertsonentzat lagunkoiagoak diren inguruneak sustatzea helburu duena.


Proiektuaren bidez, 65 urtetik gorako pertsonei laguntzen zaie beren ohiko inguruneetan autonomiaz eta parte-hartze aktiboarekin bizitzen jarrai dezaten. Aldi berean, komunitateko harremanak indartu eta herritarren inplikazioa sustatzen ditu.

Ekimena Eusko Jaurlaritzaren estrategiaren parte da, zahartze aktiboa, gizarte-partaidetza eta komunitate zaintzaileak sustatzeko. Helburua da pertsonak adinean aurrera egin ahala bizi-kalitate hobea izaten laguntzen duten ingurune eta komunitateak eraikitzea.

27 Udalerri
Gipuzkoan

40 Udalerri
Bizkaian

23 Udalerri
Araban



07 Inpaktu ekonomikoa

Ikuskaturiko kontuak



Diru-sarreraren jatorriaren xehetasuna

Guztira 79.930.562€

GFArekin itundutako zerbitzuak	28.844.487€
Osakidetzarekiko kontzertua	17.387.373€
Gizarte alorrean erabiltzaileekin batera finantziatua	15.020.104€
Gizarte eta osasun alorreko zerbitzu pribatuak	8.847.091€
Aseguru erakundeak eta beste batzuk	2.170.484€
Finantziaketa publiko lehiakorra (Eusko Jaurlaritza eta Europa Batasuna)	284.444€
Eusko Jaurlaritzarekiko Hitzarmena	615.356€
Gizarte Eskubideen Ministerioa	49.627€
Aragoiko gobernuko proiektua	293.400€
Etxez etxe zerbitzuetarako eta eguneko arreta zentroetarako udalekin kontratuak	6.372.849€
Gobernu Zentralaren izendapena	45.348€

Fakturazioa zerbitzuen arabera

Guztira 79.930.562€

Egoitza	41.786.384€
Ospitalea eta kanpo-kontsultak	12.424.479€
Etxez etxeko zerbitzua	6.433.175€
Eguneko zentroak	5.143.544€
Errehabilitazioa	4.598.236€
Ikerketa proiektuak	2.357.263€
Balorazioa	1.845.964€
Bestelakoak	3.219.196€
Kontsultoria (diagnostikoa, laguntza eta kudeaketa integratua)	743.098€
Lugaritzeko apartamentuak	805.967€
La Caixa	303.703€
Kontsultoria (inbertsio proiektuak)	269.554€

Diru-sarrereren jatorria

Gipuzkoako Foru Aldundia

28,82M€ - %36,06

Kofinantziaketa eta zerbitzu pribatuak

23,87M€ - %29,86

Eusko Jaurlaritza

18M€ - %22,52

Udalak

6,64M€ - %8,31

Gobernu zentrala

0,05M€ - %0,06

Aseguratzailerak eta besteak

2,14M€ - %2,68

Beste gobernu autonomikoak

0,29M€ - %0,37

Gizarte Eskubideen Ministerioa

0,05M€ - %0,06

Europar Batasuna

0,07M€ - %0,09

Diru-sarrereren helmuga

Langile propioak eta kanpoko langileak

61,31M€ - %76,71

Erosketak eta kanpoko zerbitzuen kontratazioa

12,23M€ - %15,30

Amortizazioa eta finantzak

5,26M€ - %6,58

Emaitza


0,69M€ - %0,86

Zergak

0,44M€ - %0,55

79,9m€

08 Gardentasuna eta gobernu ona



Matian ulertzen dugu gardentasuna eta gobernu ona gure ikuspegia gidatzen duten oinarrizko printzipioak direla.

Hori dela eta, arduraz betetzen dugu *Gardentasunari, Informazio Publikorako Sarbideari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legea*, zeinak helburu duen herritarrek baliabide publikoak nola kudeatzen diren eta haiei eragiten dieten erabakiak nola hartzen diren jakin eta uler dezaten.

Era berean, erantzukizunean, osotasunean eta pertsonengan oinarritutako zerbitzuarekiko konpromiso sakonean oinarritutako gobernu onaren kultura sustatzen dugu.

Hurrengo esteketetan, alderdi garrantzitsuei buruzko informazio eguneratua aurki dezakezu, hala nola:

Gure
patronatua
ezagutu



Urteko
aurrekontua



Kontuak



Dirulaguntzak



Administrazio
publikoarekin
kontratuak



Lankidetza-
hitzarmenak



Salaketa-
kanala



Berdintasuna




Euskara
plana



Memoriak





Pertsonen zahartze-pro
duintasuna bermatze
pertsonalizatuak eta k
iraunkorrean sustat
ingurunea

zesuan laguntzea, haien
ko, ezagutza, zerbitzu
peren autonomia modu
zen duten giroak eta
ak sortuz.

matia orienta

Zahartze eta desgaitasun eremuaren informazio eta
orientazio doako zerbitzua

matia.orienta@matia.eus
(+34) 943 31 71 23

www.matia.eus



Jarraiguzu